BIZKARGI musika eskola

URTE

BIZKARGI
MUSIKA ESKOLA

URTE

Izenburua **Título**
Bizkargi Musika Eskola 25 urte Bizkargi Musika Eskola 25 años

Edizioa **Edición**
Azkoitiko Udala Ayuntamiento de Azkoitia

Diseinua eta maketazioa **Diseño y maquetación**
F.K Kopistegia

Argazkiak **Fotografías**
Bizkargi Musika Eskola

Inprimaketa **Impresión**
Gráficas Zubi S.L.

Lege gordailua **Depósito legal**
SS-770-2009



Asier Aranbarri Urzelai
Azkoitiko Alkatea
Alcalde de Azkoitia

Kontxi Larrañaga Goenaga
Azkoitiko Udaleko Kultura Zinegotzia
Concejal de Cultura del Ayto. de Azkoitia

DUELA HOGEITA BOST URTE BIZKARGI MUSIKA ESKOLA SORTU ZENUTENOI eta ondoren aurrera jarraitzeko ahaleginean eta lanean aritu zareten guztioi, zorionak eta eskerrik asko.

Milaka azkoitiarrek jaso dute zuengandik musika eta dantza zaletasuna. Batzuk helburu akademiko eta profesionalekin. Beste batzuk, berriz, aisialdi edo "hobby" gisa; baina ziur gaude guztiei erakutsiko zeniotela, eta diozuela, musika eta dantza maitatzen, eta ingurukoei doinu eta mugimendu horiek sortzen dituzten sentimendu ezberdinak bizi eta gozatzen.

Aurrerantzean ere ilusio berdinarekin jarraitzea opa dizuegu. Elkarrekin daramagun ibilbidean, izango duzue gure babesa, laguntza eta eskerrona.

Asier Aranbarri Urzelai
Azkoitiko Alkate Jauna

Kontxi Larrañaga Goenaga
Azkoitiko Udaleko Kultura Zinegotzia

Marijose Arregi
Musika Eskolako Zuzendaria

MUSIKA-HEZKUNTZA ETA MUSIKA-ESKOLAK

HASIERA BATEAN, MUSIKA-ESKOLEN SARE BATERATUA ZEGOEN GIPUZKOAN. Sare horren ikastetxe nagusia Donostiako Goi-mailako Kontserbatorioa zen. Gaur egun, sortu zenetik hogeita bost urte igaro ondoren, Bizkargi Musika Eskola identitate propioa duen erakunde bilakatu da. Musika Eskola horretan musika eta dantza irakasten dira LOGSEn ezarritakoa betez. Horixe Bizkargi Musika Eskolaren ezaugarrietako bat. Eskolak, bestetik, baditu oinarrizko zenbait helburu. Alde batetik, musikariak sortu eta etorkizunean sona handiko musikari izan daitezkeenak hautematea du xede. Bestetik, gizartean kultura sustatzen du musika-hezkuntzaren bidez.

Tradizioz, musika-hezkuntza izan da titulu ofizial bat lortzeko gauzatu behar den ikaskuntza arautua. Gaur egun, ordea, arautu gabeko hezkuntza aurrera doa etenik gabe. Hezkuntza arautua zein arautu gabea funtsezkoak dira hezkuntzaren eta kulturaren alorrean sortzen diren gizarte-ekimenak bideratzeko, baita bizitzan barrena garatu behar dugun ikaskuntza bermatzeko ere.

Musika-eskola hezkuntza-, kultura- eta gizarte-integraziorako tresna da. Musika-eskolan, bidenabar, hainbat motatako hartzaileak aurki ditzakegu:

- **Haurrak.** Musika- eta mugimendu-tailerren bidez, haurren adierazpen-gaitasuna, musikarako gaitasuna, gaitasun intelektualak eta mugitzeko gaitasunak garatu nahi dira. Haurrek, gerora, musika-tresna bat jotzen, dantzan ala biak egiten ikas dezakete.
- **Gazteak.** Gazteak dira musika-kontsumitzailerik handienak. Hainbat estilotako musika entzuten dute. Zergatik ez diegu, bada, proposatuko lengoaia hori bere egitea? Haren bidez parada izango dute beren sentimenduak adierazi eta musikaren historia ikasteko.
- Bestetik, **helduak.** Kasu horretan helburua litzateke helduek beren aisialdiaz gozatzea, kantuan dela, dantzan dela edo instrumentu bat jotzen dela. Zenbaitetan banaka egiten dute; bestetan, aldiz, taldeka.
- Gurekin bizi diren baina **beste kultura batzuetatik etorri diren pertsonak ere integra daitezke,** musika hizkuntza unibertsala baita. Ikasi behar dugu kultura desberdinetako musika- eta dantza-errepertorioa balioesten. Horrek lagunduko baitigu munduko herritarroi elkar ulertzera.

Talde horiek guztiak aurki ditzakegu musika-eskola berean. Musika-eskolen xedea, hortaz, erronka kartsua da, musika-eskolan aritzen diren ikasleen artetik hauteman baitaiteke zein izan daitezkeen etorkizuneko musikari profesional. Eta, azken batean, musikari horiek hezkuntza arautua jasotzera anima ditzakegu.

Horregatik guztiagatik, uste dut musika eskola eremu egokia dela bizitzako zenbait hezkuntza-proposamen betetzeko.

Roman Sudupe
Musika Eskola sortu zenean, Alkate

MUSIKA ESKOLAREN 25. URTEURRENA DELA ETA

MUSIKA ESKOLA SORTU ZEN GARAIAN ALKATE NINTZELAKO gogorapen batzuk adierazteko eskatu didate eta hortara noa ahal dudan neurrian, izan ere zaila egiten zait orduko gauzak gogoratzea, gauza gehiegi gertatu zaizkit-eta urte guzti hauetan zehar. Ni baino zehaztasun gehiagorekin gogoratuko dituzte gauzak garai hartako musika eskolako arduradunek, bereziki Maria Jose Arregik eta Patxi Larrañagak.

Hiru gauza azpimarratu nahi ditut. Lehenengoa: Azkoitiak inolaz ere ez zeukala atzera gelditzerik Gipuzkoa osoan eramaten hasi zen mugimenduaren aurrean. Ezinbestekoa zen lehen mailako musika ikasketak herrian bertan ematea. Gainera, oso garrantzitsua zen ikasketa horiek ahalik eta haur gehienek egitea. Azkoitia bezelako herri musika zale batek kalitatezko ikasteta zerbitzua izan behar zuen. Logika hutsa zen.

Bururatzen zaidan bigarren gauza kokagunearena da. Gaztan eta Gamundineko lurretan dena bota eta etxebizitzak egiteko asmotan zebiltzen hainbat herritar. Udalak beste burutazio eta nahiak zituen eta ondorio bezala herriaren erdi-erdian toki gutxitan den atsedengune eder bat egitea lortu genuen. Gainera Gaztantarren etxearen jabegoa udalaren eskuetan gelditu zen. Herriko gazte batzuek gaztetxea hor kokatzea nahi zuten. Gogoratzen naiz oraindik gazte talde bat barrura sartu eta egun batzuek nola igaro zituzten. Udalakoek musika eskolako arduradunei eskeini genionean hauen poza etzen txikia izan. Herriko tokirik onenean dago kokatuta musika eskola.

Hirugarrena: ikastetxearen kudeaketa. Gurasoen artean bazen mugimundu bat udalak bere gain har zezan zerbitzu guztia. Udalean geundenak garbi geneukan musika eskolaren kudeaketa guraso eta irakasleena izan behar zuela eta udalak diru laguntza eman behar zuela beste erakundeek egiten zuten erara. Zorionez etzen inolako arazorik egon eta musika eskolaren kudeaketa, urte guzti hauetan zehar, oso ona izan denaren iritzia daukat.

Ziur nago beste mila urteetan zehar ere bere eragin bikaina izaten jarraituko duela gaurkoz hogeita bost urte bete dituen musika eskolak.

ZORIONAK!

Patxi Larrañaga
Guraso Batzordeko
1. Lehendakaria

"BIZKARGI" MUSIKA ESKOLA

ORAIN DELA 25-26 URTE, haurreneko urratsak ematen hasi ginen eta une gogorrak izan ziran, oraindik trantsizio unetan geunden eta diru faltan zeuden erakundeak, batez ere gai hauei aurre egiteko. Baina gure ilusioari aurre egingo zionik ez zegon.

Gure ume eta gazteriari musika "bizitzan" bideak jartzen hasi ginanian ez genuen pentsatzen gaurko girora helduko ginenik. Gogoratzen naiz ez genuela musika tresnarik...eta ez lokalik. Bakarrik genuena "Miserikordi" zaharreko eskolako lokalak eta berak kondizio txarrean.

Egun batean joan nintzen Udaletxera problema hauek aurre-aurre alkateari jartzera. Garai hartan Roman Sudupe zen alkate. Entzun da gero erantzun zidan hemendik astebetera joateko. Nik uzte baino hobeto irten nintzan bilera honetatik. Hau izan zen proposamena, eta horrela esan zidan: Pakito! (niri txikitatik hola deitzen zidaten Errebalean) bi lokal edo etxe dauzkak aukeratzeko, bat Floreagan eta bestea Gaztan Etxea (Alberdi). Ez nuen dudarik izan, bigarrena hartzeko. Berak esan zidan etortzeko hilabete batera, paper ofizialak eta sinadurak jartzea. Hola izan zen Musika Eskolaren hasiera.

Hurrengo pausoa izan zen, guraso batzorde bat osatzea, gure proiektua aurrera emateko. Zerbait berria zen garai hartan Musika Eskola bat sortzea guretzat eta beste herrietan gauza berdina gertatu zen. Denak ikusten zuten beharrezkoa zela holako eskola bat sortzea.

Kontuan eduki behar dugu, zenbait musika irakasleak bere etxe edo beste lokaletan ematen zutela eskola, bai solfeoa edo soinu tresna batzuk, batez ere piano, esku-soinu..., Baina gure asmoa eta baita ere irakasleena izan zen, gai hau errekonozimendu ofizial bezala bihurtzea.

Urte batzuk aurretik "Arrasateko Musikal" Eskola sortu zuten. Hau izan zen gure modelo bezala, neurri batean. Baina Kontserbatorioko lehendakaria, Esteban Elizondo izan zen gure aholkularia, bere lana zen orduan eta beti egongo gara eskertuta bere babesagatik. Bera izan zen guri erakutsi ziguna, nola atera aurrera gure asmoak.

Aurreneko pausoa errekonozimendu ofiziala lortzea zen, eta 1983-84ko ikasturtean lortu genuen gure Musika Eskolarentzat.

Ibilbide honetan nola ez gogoratu ardura handiena dutenak gure Eskolan: Irakasleak. Hauek egiten dute eguneroko lana eta heziketa, gure seme alabekin.

Eskerrik asko! Bihotzez.

Eskerrik asko hau ere luzatu nahi diot, hasieran izan zen irakasle bati, hil zen, baina gurekin dago, Malu Gonzalez, goian bego.

Berarekin batera denok abestu dezagun Euskal Musikaren gorespena:

Arnasa, ahotsa, bihotza, gizasemeak biltzeitu kantatzean. Gogoa badiola gora, musikaren hegaletan zerura.

Eta 4. ahapaldian: **Atsegin handietan bai eta ere atsekabetan, bizitzaren une guztietan, baldin musika badago gertu, lasaitasunak hartuko gaitu, itxaropena izango dugu. Musikari esker bizitza gertatuko zaigu eder.**

Juan Carlos Perez
Musikaria
Gaur egun, Guraso Batzordeko idazkaria

GONZALO MARTINEZ DE BIZCARGUI, UN MÚSICO DE SU TIEMPO

GONZALO MARTINEZ BIZKARGI, PUNTAKO MUSIKARIA. Gonzalo Martinez Bizkargi musikari azkoitiarra musikaren eboluzioaren garairik erabakigarrienean aritu zen, hau da, Erdi Aroaren azken txanpan. Garai hartan, mundu berria ernetzen ari zen, eta gauzak beste era batera ikusten hasi ziren alor guztietan.

Musikariek, esaterako, musikari teoriko soil izateari utzi zioten. Bazter utzi zuten musikaren espekulazio filosofikoa nahiz kosmologikoa, eta ofizioz musikari izaten hasi ziren.

Musikari pitagorikoen eta Boecio nahiz San Agustin musikari kontserbatzaileen eraginez, Erdi Aroko musikariek ez zuten lotura zuzenik interpretatzen ziren melodiekin. Ideien eta proportzio matematikoen gain ibiltzen ziren hausnarketan. Bilatzen zuten ideia nahiz proportzio matematikoen eta astroen, erlijioaren nahiz filosofiaren arteko lotura. Hausnarketa horiek, nolanahi ere, ezin zitezkeen zuzen aplikatu musika praktikoan. Are gehiago, garai hartan musika jotzen zutenak ez ziren "benetako" musikaritzat hartzen. "Benetako" musikari ziren musikaren gain hausnarketan aritzen zirenak, hau da, teorialariak.

Aldaketa 1460. eta 1550. urteen bueltan gertatu zen, Bizkargiren garaian, hain zuzen. Musikari azkoitiarra, hortaz, musikaren aldaketaren lekuko izan zen. Bizkargi Burgosko Visitación elizako kapilau zen. Burgosko apezkikutzaren laguntzaz bi itun idatzi zituen: Kantu lauaren eta kontrapuntuaren artea, batetik, eta Intonazio berriak, Erromako elizan egun kantuan aritzen diren modernoen abesteko erara moldatuak, bestetik. Aplikatzeko errazak ziren hainbat arau jaso ziren itun horietan, bere elizako apaizgaiek egoki kanta zezaten.

Agiri horiek, garaiko musikari praktikoen itunen antzera, xede zuten musika jotzean aplikatzeko zailak ziren afinazioen arteko oztopoak eta lehiak gainditzea. Bizkargik, bere aldetik, "belarria" oinarri hartu zuen zailtasun horiek gainditzeko. Ez zituen arau fisikoak edo espekulatiboak justifikatu. Bizkargik, itun horietan, zenbait arau praktiko jaso zituen bere apaizentzako, arazoak baitzituzten Erdi Aroko tradizio zaharreko arau itzal eta zailei jarraituz musika interpretatzeko. Bizkargiren hitzetan "itun labur hau irakurtzen dutenek jakin behar dute gure asmoa izan zela, eta izan badela, abestuko dutenei bide zuzena erakustea, gehiegi luzatu gabe. Hortaz, ez genuen nahi azalpen teorikotan murgildu". (...) "*ez ditut ulertzen doktore horien azalpenak. Musika ikasi nahi duten nobi-*

zioei irakatsi egin nahi diet nik ezagutzen dudanetik haiei erabilgarrien suerta dakiekeena". Carmen Rodríguez Suso musikologoaren arabera, Bizkargik –San Ignazio Loiolakoaren ondoko belaunaldikoek bezalaxe– eliza herritik gertuago egotea nahi zuen. Horregatik, gaztelaniaz idatzi zituen bi itun horiek, eta ez latinez, herri xeheak uler zitzan. Era berean, Rodríguez Susok uste du itunak egokiturik daudela lur-eremu zabaleko diozesi batean sakabanaturik dauden apaizek uler ditzaten, apezpikuaren zaintzapetik urrun dauden apaizek, hizkuntza- nahiz kultura-komunitate desberdinetakoek, kristautu berri diren eta ebanjelizatzeko zailak diren pertsona andanaren artzain direnek erabil ditzaten.

Hain "ausarta" izan zen Bizkargi non garai hartako ia saiakera guztietan aipatzen baitzen. Ezjakintzat eta zarpailtzat jo zuten askok "belarria" oinarri hartzeagatik eta, praktika instrumentalean, Antzinaroko maisuen "teoriaren" kontra joateagatik. Bizkargi ez zuten onartu musika berriaren teorialari "aukeratuen" talde nagusian. Juan Bermudok, esaterako, hauxe adierazi zuen: "*teorialari izateko Bizkargi eta beste arlote batzuk irakurtzearekin nahikoa dela uste baduzue, oker zabiltzate*". Bizkargi kritikatu zutenek, nolanahi ere, azkoitiarraren ideia berritzaile berberak defendatzen zituzten, funts handiagoko lanetan eta latinez. Ramos de Parejak, esaterako, musikaren ikuspegi berria –egun ezagutzen duguna– sustatu zuen. Bizkargik eta Ramos Parejak ideia berbera defendatzen zuten. Kontua da Bizkargik itun laburrak idatzi zituela, non arauak trinkoak, erabiltzeko errazak eta eguneroko bizipenetan oinarritutakoak ziren. Garai hartan, alabaina, gisa horretako itun labur asko zegoen. Batzuek zein besteek argi erakusten dute musika praktikoaren bidea prestatzeko beharra sumatzen zela.

Musikaren aro zehatz hori aztertzen duen zeinahi itunek erakusten duen moduan, Bizkargi idazle aparta zen. Idazteaz gain, antza denez, musika konposatu ere egin zuen. Meza bat eta zenbait kanta konposatu zituela uste dugu. Nolanahi ere, ez dakigu ziur berak egin zituen.

Edonola ere, Europako musikaren historiako garairik garrantzitsuenetako bateko artistetako bat da azkoitiarra, eta hori sekulako ohorea da gure herriarentzat. Are ohore handiagoa da orain 25 urte sortutako gure Musika Eskolak haren izena hartu izana. Haren izena inspirazio iturri da, berritzeko gogoa pizten du eta erne nahiz...

...praktiko izateko bidean lagun dugu.

Cruz María Alberdi
Musika Eskolako Lehendakari Ohia

25 URTE BETE DIRA BIZKARGI MUSIKA ESKOLA SORTU ZENETIK. Hainbeste urte igaro arren, zirrara eta maitasun handiz gogoratzen ditut Marijose Arregiren lehen urrats haiek. Emakume gazte eta handi hura gogoz aritu zen. Musika-irakasle handia genuen, ekintzaile aparta. Prest zen uneoro musika irakasteko bere gaitasuna eta diziplina azkoitiarren mesedetan erabiltzeko. Gure herrian musika irakasteko ikastetxea sortu nahi zuen, eta konbentzitu ninduen erronka edo proiektu hartan parte har nezan. Egitasmoari ekin genion, jakinda ere esku hutsik geundela eta lan handia egiteke genuela.

Lokalik ez genuenez, Marijose bere etxean hasi zen gazteei eskolak ematen, gero "Kimu" Parrokiko lokal batean eta aurrerago Merkatu Plazako Gurutze Gorriaren egoitzan. Azkenik, Udalak proiektuan parte hartzea erabaki zuen eta egun dugun eraikina utzi zigun. Eskasia bizi izan genuen lehen urte horietan, baliabide ekonomikorik eza, laguntza urri; irakasleek gogotik egiten zuten lan soldata irrigarri baten truk. Arazoak arazo, Bizkargi Musika Eskolako arduradunek (zuzendariek, guraso-elkarteak, irakasleek eta erakundeek) lortu dute gure herrian 25 urtez musika-eskola egotea. Bizkargi Musika Eskolak gogoan ditu Azkoitian izan diren eta egun gure artean ez dauden musikari azkoitiarrak, beren jakituria eta musika egiteko artea oinordetzan utzi baitigute, eta guk odoletan erroturik daramagu.

Gaur egun, Bizkargi Musika Eskola ikastetxe ederra da, bizi-bizia. Ehunka ikaslek bertan gauzatzen dituzte musikako beren ikasketak. Bizkargi Musika Eskolak Azkoitia goratzen du. Baina ezin dugu bertan gozo gelditu. Musika-hezkuntzako goimailako ikasketak eman nahi ditugu.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet irakasle guztiei, une zailetan diziplinari eutsi izanagatik. Esan gabe doa une latz horietan hunkitu egin ninduela irakasle guztiek proiektua aurrera ateratzeko buru-belarri aritu izanak. Amaitzeko, gogora ekarri nahi dut Malu Gonzalez zena, solfeo eta pianoko irakasle bikaina.

Bizkargi Musika Eskolaren
IBILBIDEA

Azkoitiko musika-giroa 1970eko hamarkadan

Azkoitian beti izan da musika-zaletasun handia. Horren erakusgarri da, akademietan eta bestelako zentroetan (besteak beste, hainbat afizionatu eta profesionalen harrobi bikain izan den San Jose ikastetxean), solfeoa edo musika-tresnaren bat jotzen ikasi duten haurren kopuru handia.

1980ko hamarkadara arte, Donostiako Musika Kontserbatorioa izan zen Gipuzkoan musika-irakaskuntzarako nahitaezko erreferentzia. Kontserbatorioan Gipuzkoa osoko ikasleei ematen zitzaizkien eskolak, maila hauetan: oinarrizkoa, erdikoa eta goi-maila. Horrez gain, ekainean, irakasleak hainbat herritara joaten ziren egun batzuetan, musika-ikasketak Gipuzkoako zenbait herritan egin arren, Donostiako Kontserbatorioan matrikula egin behar zuten ikasleei azterketak egiteko.

Askotariko arrazoiak direla eta —besteak beste, ekonomia-egoerak hobera egin izana— musika-irakaskuntzak eskari handia izan zuen 1970eko hamarkadan. Gure herrian, Azkoitian, azterketak Jausoro Jauregian (gaur egun Osakidetzako anbulatorioa dagoen tokian) egiten ziren eta, geroago, Intxausti Jauregian. Urola haraneko beste herrietako ikasleak ere etortzen ziren, hala nola, Azpeitikoak eta Zestoakoak.

El ambiente musical de Azkoitia en los años 70

Azkoitia siempre ha demostrado una gran afición musical que se confirma con el elevado número de niñas y niños que han estudiado solfeo y algunos instrumentos en academias y otros centros, como el colegio San José, que fue una auténtica cantera de aficionados y profesionales.

Hasta los años 80, la referencia obligada de la enseñanza musical en Gipuzkoa era el Conservatorio de Música de San Sebastián, que además de impartir clases a alumnos de todo el territorio en los niveles: elemental, medio y superior, a lo largo del mes de junio sus profesores también se desplazaban a distintas localidades durante varios días para examinar a alumnos que aunque estudiaban en distintos pueblos se debían matricular en el centro de enseñanza musical de la capital donostiarra.

Por distintos motivos, entre ellos la mejora de la situación económica, la enseñanza musical tuvo una fuerte demanda en la década de los 70. En el caso de nuestra localidad, los exámenes se realizaban en el Palacio de Jausoro, el actual ambulatorio de Osakidetza, y posteriormente en el Palacio de Intxausti. Acudían también alumnos de otros puntos del valle del Urola como Azpeitia y Zestoa.

Donostiako Kontserbatorioa deszentralizazioaren alde

1979an, Donostiako Kontserbatorioak bete berri zuen mende bat eta, osotasunean, goi-maila lortzear zegoen.

El Conservatorio de San Sebastián apuesta por la descentralización

En 1979, el conservatorio donostiarra, estaba a punto de conseguir el grado superior en su conjunto, se planteó la

Une hartan, musika-ikasketak deszentralizatzeko aukera aztertu zuen. Izan ere, lurralde osoko ikasleen matrikulazio-kopuruak gora egin zuen, eta arazo bihurtu zen, aldizka, hainbat herritara joan beharra, azterketak egitera.

Garai hartan, musika-hezkuntza zenbait eskola partikular eta akademiatan ematen zen, besteak beste, Musika Bandarenean, San Jose ikastetxeko Pilar Elorzaren eskolan. Solfeo-eskolak ematen ziren han eta, musika-tresnen arloan, pianoa ikasteko aukera zegoen. Era berean, musika-akademia bat ere bazegoen, ordurako. Marijose Arregi irakaslea zuen arduradun, eta solfeo-, akordeoi- eta harmonia-eskolak ematen ziren, hasieran etxean, aurrerago parrokiaren lokal batean («Kimu» esaten zioten lokalari) eta, gero, Merkatu Plazako lokal batean.

1979ko urriaren bukaeran, Donostiako Udal Kontserbatorioak idazki bat bidali zion Marijose Arregiri, eta jakinarazi zion aztertzen ari zirela irakaskuntza-jarduerak deszentralizatzeko aurreproiektu bat; horrek aukera emango zuen, aldez aurretik baldintza jakin batzuk betez, zenbait diziplinaren oinarrizko maileta-n, Gipuzkoako Irakaskuntzako Zentro pribatuetan egiten ziren musika-ikasketei balio akademikoa emateko.

Dokumentuak azaltzen zuen tituludun irakasleen bitartez irakaskuntza partikularra ematen zuten eskola eta akademia partikular guztientzat zela, edozein zelarik ere haietako ikasle-kopurua, musika-tresnen hornidura eta instalazioen tamaina.

Gainera, idazkian zehaztu zen interesdunek hauek adierazi behar zituztela: balio akademikoa lortzeko nahia, musika-irakaskuntza emateko instalazioen azalera, tituludun irakasleen eta ikasleen kopurua, eta zuten irakaskuntza-materiala edo beharko luketena.

posibilidad descentralizar los estudios de música ante el incremento de matriculaciones de alumnos de todo el territorio y la problemática de tener que acudir regularmente a varias localidades para realizar los correspondientes exámenes.

Por aquella época, la educación musical estaba centrada en algunas clases particulares y academias, entre ellas la de Banda de Música, Pilar Elorza en el Colegio de San José, donde impartía clases de Solfeo y como disciplina instrumental el Piano. Paralelamente funcionaba ya una academia de música a cargo de la profesora Marijose Arregi donde impartía clases de Solfeo, Acordeón y Armonía; primeramente, en casa; seguidamente en un local perteneciente a la Parroquia y conocido por el nombre de "Kimu" y más adelante en un local de la Plaza del Mercado.

A finales de octubre de 1979, el Conservatorio Municipal de San Sebastián envió un escrito a Marijose Arregi informándole de que estaba en estudio un anteproyecto de descentralización de actividades docentes "que darían lugar al otorgamiento, previo determinados requisitos, de validez académica a los estudios musicales que, en los grados elementales de algunas disciplinas se cursan en Centros Provinciales de Enseñanza privados".

El documento explica que está dirigido a todos los colegios y academias particulares que impartían enseñanzas particulares a través de profesores titulados, "sea cualquiera el número de sus alumnos, la dotación de instrumentos con que cuenten y la importancia de las instalaciones…".

Precisa además que hay que indicar, además del deseo de alcanzar la validez académica, la superficie de las instalaciones dedicadas a enseñanzas musicales, número de alumnos y de profesores titulados y mate-

Azkenik, argitu zen dokumentuan aipatutako irakaskuntza oinarrizko musika-ikasketak zirela eta, hasieran behintzat, hauek baino ez zituela barne hartuko: solfeoko bost mailak, musika-tresnen irakaskuntzako oinarrizko maila eta abesbatzako bi mailak. Idazkia urriaren 29an egin zen, eta eskatzen zen, estatistika-taulak egite aldera, adierazitako dokumentuak azaroaren 9a baino lehen bidali behar zela.

1982-1983: Bizkargi Musika Eskola sortzeko lehenengo urratsak

Balio akademikodun eskola sortzeko aukera erronka handia zen. Hortaz, erabakirik hartu aurretik, Marijose Arregik egoki iritzi zion Azkoitiko Udalaren iritzia zein zen jakiteari. Horretarako, elkarrizketa izan zuen orduko hartan alkate zen Roman Suduperekin, eta hark aldeko balioespena eman zion herrian halako ezaugarridun zentroa antolatzeko aukerari. Bere interesaren erakusgarri, alkatea Donostiara joan zen, proiektua abiarazteko eskatzen ziren baldintzen xehetasunak ezagutzeko.

Hainbat zentrotako ikasleen gurasoek sustatu zituzten garai hartako akademietako buru ziren irakasleekin egindako lehenengo bilerak, eta Batzorde Sustatzailea sortu zen.

BATZORDE SUSTATZAILEA

- **Francisco Larrañaga Juaristi**
- **Cruz Mª Alberdi Alberdi**
- **Begoña Azkue Etxeberria**
- **Miguel Mª Azpiazu Sasieta**

rial docente con el que se cuenta o que se necesitaría.

Finalmente, se aclara que la enseñanza a la que se refiere el documento es la de estudios musicales elementales y que, al menos en principio, únicamente se refería a los cinco cursos de solfeo, el nivel elemental en cuanto a la enseñanza instrumental, así como los dos cursos de conjunto coral. El escrito llevaba fecha de 29 de octubre y precisaba que "para facilitar la confección de cuadros estadísticos, se debía remitir la documentación indicada antes del 9 de noviembre.

1982-1983: primeros pasos para constituir Bizkargi Musika Eskola

La posibilidad de crear una escuela con validez académica era un reto importante, por lo que antes de tomar una decisión, Marijose Arregi creyó oportuno conocer la opinión del Ayuntamiento de Azkoitia, para lo que se entrevistó con el entonces alcalde Román Sudupe quien valoró muy positivamente la oportunidad que suponía para la localidad organizar un centro de esas características. Como muestra de su interés, el alcalde viajó personalmente a Donostia para conocer más detalles de las condiciones requeridas para la puesta en marcha del proyecto.

Los padres de alumnos de los diversos centros promovieron las primeras reuniones junto a las profesoras que dirigían las academias entonces existentes y se creó una comisión promotora.

COMISIÓN PROMOTORA

- **Francisco Larrañaga Juaristi**
- **Cruz Mª Alberdi Alberdi**
- **Begoña Azkue Etxeberria**

- **Jose Mª Sagarzazu Goenaga**
- **Joaquín Arellano Blanco**
- **Josefa Arrieta Astigarraga**
- **Itziar Alberdi Larrañaga**

Batzorde Sustatzailearen buru Patxi Larrañaga jarri zen eta Batzordea lanean hasi zen, dokumentuak prestatu eta Donostiara bidaltzeko, horixe baitzen eskola sortzeko nahitaezko baldintza.

Harremanetan jarri ziren Donostiako organista eta kontserbatorioko solfeoko katedradun Esteban Elizondorekin.

Bilera irekia egin zen Azkoitiko kultur etxean, eta bertan izan ziren ikasleak, ikasleen gurasoak, irakasleak eta Udalaren ordezkaritza bat (Pedro Mª Aranbarri buru).

Esteban Elizondo izan zen Donostiako Kontserbatorioaren ordezkari, eta xehetasunez azaldu zituen Musika Irakaskuntzako Zentro bat irekitzeko baimen ofiziala lortzeko bete behar ziren gutxieneko baldintzak. Halako zentroek oinarrizko mailako Musika Irakaskuntzako Zentro kalifikazioa izango zuketen, Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioari atxikiak.

Baldintzen artean, lehena zen irakasleek tituludunak izan behar zutela; eta, bigarrena, musika-tresna sinfonikoak jotzen ikasteko aukera eman behar zutela, gutxienez, harizkoen taldeko bat eta metalezko haize-instrumentu bat edo zurezkoen taldeko bat. Lehenengo ikasturterako biolina aukeratu zen, eta hurrengo ikasturterako, klarinetea.

Gainera, talde sustatzailea hainbat gai aztertzen hasi zen: lokal posiblea, irakasleak kontratatzea, laguntzak eta abar.

Erakunde berria sortzeak gogoeta eragin zien garai

- **Miguel Mª Azpiazu Sasieta**
- **Jose Mª Sagarzazu Goenaga**
- **Joaquín Arellano Blanco**
- **Josefa Arrieta Astigarraga**
- **Itziar Alberdi Larrañaga**

La Comisión Promotora, presidida por Patxi Larrañaga comenzó a trabajar para preparar los documentos y enviar la documentación a San Sebastián, requisito indispensable para crear la escuela.

Se contactó con el organista donostiarra y catedrático de solfeo del conservatorio, Esteban Elizondo.

Se convocó una reunión abierta en la Casa de Cultura de Azkoitia en la cual asistieron alumnos, Padres de alumnos, profesorado y una representación del Ayuntamiento presidida por Pedro Mª Aranbarri, entonces concejal de Cultura.

Esteban Elizondo fue el representante del Conservatorio de Donostia y el que explicó con detalle las condiciones mínimas necesarias para conseguir una autorización oficial para la apertura de un Centro de Enseñanza Musical. Dicho Centro obtendría la calificación de Centro de Enseñanza Musical de grado elemental adscrito al Conservatorio Superior de San Sebastián.

La primera era que los profesores tenían que ser titulados y la segunda, la impartición de instrumentos sinfónicos, mínimamente uno de la familia de la cuerda y uno de la familia de viento metal o madera. La elección para el primer curso escolar fue la del Violín y para el siguiente curso, el Clarinete.

Además, el grupo promotor comenzó a estudiar el posible local, la contratación del profesorado, financiación, ayudas…

hartako akademietako irakasleei ere, hain zuzen, eskolaren alde egiten bazuten, irakaskuntza partikularra alde batera utzi beharko baitzuten.

Batzordeak, eskatutako dokumentu guztiak bildu eta Donostiara bidaltzeaz gain, estatutuak egin zituen, eta sortuko zen eskolaren izena zein izango zen erabaki zuen: Bizkargi; XV. mendearen erdialdean Azkoitian jaio zen musikako teorialari handi Gonzalo Martínez Bizkargiren oroigarri eta haren lanaren aintzatespen. Izena erabaki eta gero, logotipoa egitea proposatu zen. Ideiak eta diseinuak bildu ziren eta, azkenean, Jose Maria Sagarzazuk aurkeztutakoa onartu zen; gaur egun, hori darabil eskolak, oraindik.

1983ko martxoaren 9an, Gobernu Zibilean aurkeztu ziren estatutuak, nahitaez egin behar baitzen hala, Bizkargi Musikeskola Elkartea izenarekin.

Baina, garrantzitsuena izan zen, zenbait kudeaketa, bilera eta joan-etorri egin ondoren, Musika Eskola dagoeneko itxura hartzen hasi zela. Lehengo urratsak behin-behinekoak izan ziren, eta errukietxe zaharrean hasi ziren lanean, ehun ikasle baino gehiagorekin.

1983-1990: lehenengo ikastaro osoak eta sendotzea

Urte hartako azaroan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Eusko Jaurlaritzak Bizkargi Musika Eskolari eskolak ofizialki eman ahal izateko eman zion behin betiko baimena. Musika-zentro berria eraikitzeko bidean beste maila bat izan zen.

La creación de la nueva institución supuso también una reflexión para los profesores de las academias existentes en aquellos años pues si apostaban por la escuela, lógicamente debían concluir la enseñanza de carácter particular.

Además de cumplimentar todos los documentos exigidos y remitirlos a la capital donostiarra, el grupo elaboró unos estatutos y decidió el nombre de la futura escuela: Bizkargi, en recuerdo y reconocimiento de la labor de un gran teórico de la música nacido en Azkoitia a mediados del siglo XV, Gonzalo Martínez de Bizcargui.

Una vez acordado el nombre, se planteó la elaboración de un logotipo. Se recogieron ideas y diseños y definitivamente se adoptó el presentado por José María Sagarzazu, que hoy sigue vigente.

El 9 de marzo de 1983, los Estatutos se presentaron en el Gobierno Civil, como era preceptivo, con el nombre de Asociación Bizkargi Musikeskola.

Pero lo más importante fue que tras una serie de gestiones, de reuniones, de idas y venidas, ya comenzaba a perfilarse una Escuela de Música cuyos primeros pasos aunque con un carácter provisional, fueron dados en la antigua casa de la Misericordia con más de un centenar de alumnos.

1983-1990: primeros cursos completos y consolidación

En noviembre de ese año se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco la autorización definitiva del Gobierno Vasco para que Bizkargi Musikeskola pudiera impartir las clases de forma oficial. Fue un peldaño más

187 ikasle izan ziren, guztira, lehenengo ikasturtean. Eta 267 matrikula egin ziren, ikasleek aukera baitzuten gai bat baino gehiago aukeratzeko, hauen artean:

solfeoa, abesbatza, harmonia, pianoa, akordeoia, biolina eta biola.

Irakasle guztiak Azkoitikoak ziren, biolineko irakaslea salbu (donostiarra zen) eta, hortaz, estatutuak onartu zirenez gero, zentroko lehenengo talde pedagogikoa eratu zen.

LEHENENGO TALDE PEDAGOGIKOA

- **Pilar Elorza Larrañaga.** Zuzend. / *Solfeoa eta pianoa*
- **Marijose Arregi Etxeberria** / *Akordeoia eta harmonia*
- **Lourdes González Gil** / *Solfeoa eta pianoa*
- **Regina Elorza Gereño** / *Solfeoa eta pianoa*
- **Miguel Mª Azpiazu Sasieta** / *Abesbatza*
- **Aurora Peralta** / *Biolina eta biola*

1984/1985 ikasturtea. 1984ko irailean egindako bileran, Marijose Arregi izendatu zuten zentroko zuzendari. Ikasturtez ikasturte, pixkanaka, gero eta ikasle gehiago matrikulatu zen, eta talde pedagogikoan ere kide gehiago sartu zen; hasierako urteetan 11 edo 12 irakaslerekin sendotu zen.

Irakasle berriak sartu ziren, musika-tresna gehiago ikasteko aukera emate aldera: klarinetea, gitarra eta txirula; bai eta dantza klasikoa ere: baleta. Baleteko eskolak 1985eko udaberrian hasi ziren, gaur egungo eraikinean.

Udalbatza jakitun zen garrantzitsua zela halako zentroa herrian izatea, eta Gaztan Enea eraikina erosi zuen. Funtsezkoa izan zen hori, proiektua aurrera eraman ahal izateko, eta urteko laguntza ekonomiko bat esleitu zion. Nolanahi ere, 1984/1985 ikasturtea eraikin

en la constitución del nuevo centro musical.

Un total de 187 alumnos asistieron a las clases en aquel primer curso, que contó con 267 matriculaciones debido a que los alumnos podían elegir más de una materia a la vez entre las siguientes: Solfeo-Conjunto, Coral-Armonía-Piano-Acordeón-Violín-Viola.

Exceptuando la profesora de violín que procedía de Donostia, el resto del profesorado era de Azkoitia, con lo cual se conformó el primer cuadro pedagógico del Centro a raíz de la aprobación de los estatutos.

PRIMER CUADRO PEDAGÓGICO

- **Pilar Elorza Larrañaga**. Directora / *Solfeo-Piano*
- **Marijose Arregi Etxeberria** / *Acordeón y Armonía*
- **Lourdes González Gil** / *Solfeo-Piano*
- **Regina Elorza Gereño** / *Solfeo-Piano*
- **Miguel Mª Azpiazu Sasieta** / *Conjunto Coral*
- **Aurora Peralta** / *Violín-Viola*

Curso 1.984-85: en reunión celebrada en septiembre de 1.984 Marijose Arregi es nombrada directora del Centro; poco a poco, curso a curso, el número de alumnos fue aumentando y también el cuadro pedagógico, que durante los primeros años se consolidó en un número de 11 o 12 profesores.

Nuevos profesores se incorporaron para ampliar las disciplinas instrumentales: clarinete, guitarra y flauta, así como la danza clásica: Ballet, cuyas clases comienzan en la primavera de 1.985, ya en el edificio actual.

La corporación municipal, consciente de la importancia para el pueblo de un centro de estas características, adquirió el edificio de Gaztan Enea, pieza clave para poder llevar adelante el proyecto, y asignó una

zaharrean hasi zuten, baina 1985ean irakasle eta ikasleak behin betiko eraikinera lekualdatu ziren: Gaztan Enea-ara.

Egia esan, eskolak abendutik aurrera lokal berrian ematea zegoen aurreikusita, baina oso klima-baldintza gogorrak izan ziren urte hartan. Elurteak bata bestearen ondoren etorri ziren, eta kaosa eragin zuen horrek Azkoitian. Hainbat saltokik ateak itxi behar izan zituzten; izan ere, elurrak zenbait komunikabide geldiarazi zituen, bereziki errepideak, eta, horren ondorioz, hornigaiak ezin ziren iritsi jarritako epean.

«Bizkargi» Musika Eskolan, zain zeuden lokal berrirako altzariak noiz iritsiko.

Elurteak joan eta egoera normaltasunera itzultzen ari zela zirudienean, beste ekaitz batek astindu zuen inguru hura, eta berriz etorri ziren arazoak: orduko hartan ere dendak itxita, errepideak blokeatuta... Beraz, beste behin ere, atzeratu behar izan zen eraikin berrirako lekualdaketa. Azkenean, 1985eko urtarrilean, altzariak jarri ahal izan ziren instalazioetan, eta eskolak ematen hasi ziren Gaztan Enean. Urte hartako ekainaren 22an inauguratu zuten, ofizialki, eraikin hartan zegoen zentroa.

Udalaren lankidetza oso garrantzitsua izan da. Izan ere, gogoan izan behar da zentroak, ofizialki pribatua den arren, berez itundutako zentro gisa funtzionatzen duela. Eraikina udalarena da, eta urteko hiru sarrera-iturriren bitartez finantzatzen da zentroa: ikasleen matrikulak

ayuda económica anual. No obstante, el comienzo del curso escolar 1.984-85 tiene lugar en el antiguo edificio hasta enero de 1.985, fecha en la cual profesores y alumnos se trasladaron al que ha sido el edificio definitivo: Gaztan Enea.

En realidad estaba previsto que las clases se impartiesen ya en el nuevo local en diciembre, pero fue un año especialmente duro en cuanto a la climatología. Las nevadas fueron constantes y provocó un auténtico caos en Azkoitia. Buena parte de los comercios tuvieron que cerrar pues la nieve supuso un colapso en las distintas vías de comunicación, especialmente en las carreteras, lo que impedía que los suministros llegasen en la fecha estipulada.

En el caso de "Bizkargi" Musika Eskola, se estaba a la espera de recibir los muebles para el nuevo local.

Cuanto todo parecía que volvía a la normalidad y dejó de nevar, un nuevo temporal azotó la zona y se volvió a repetir la historia: de nuevo comercios cerrados, carreteras bloqueadas… por lo que el traslado al nuevo edificio tuvo que volver a retrasarse, hasta que en enero de 1985 se pudieron amueblar las instalaciones y comenzar las clases en Gaztan Enea. El 22 de junio de ese mismo año fue la inauguración oficial del Centro en este edificio.

La colaboración del ayuntamiento ha sido muy importante pues no hay que el olvidar que el centro, aunque oficialmente es de carácter privado, en la práctica funciona como un centro concertado. El edificio es municipal y la financiación del centro tiene tres

eta kuotak, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza eta Azkoitiko Udalaren diru-laguntza jasotzen ditu.

Hala ere, ikasleen gurasoek ordaintzen zituzten kuotak ez ziren nahikoa, besteak beste, behar-beharrezko musika-tresnak erostetik etorritako gastu guztiak ordaintzeko. Pianoak ordaintzeko, adibidez, gastu handia egin behar zen. Zorionez, Foru Aldundiak ere laguntza eman zuen, eta haren diru-laguntzari esker erosi zituen zentroak lehenengo pianoak eta beste musika-tresna batzuk.

Hasierako urte horien ezaugarrietako bat zen Donostiako Udal Kontserbatorioari atxikitako zentroa zela. Horrenbestez, hiru hilez behin, aktak egin eta Donostiara bidaltzen ziren. Ikasturtearen bukaeran, Azkoitian egiten ziren azterketak, salbu oinarrizko mailako edozein diziplinatako azken mailan. Maila horretako azterketak egitera Donostiara joan behar zen.

Kontserbatorioan epaimahai bat sortu zen, erakunde hartako bi irakaslek eta Bizkargi Musika Eskolako irakasle batek osatua. Hainbat ikasle eta irakasle joaten zen urtero, trenez, ikasturte bukaerako azterketak egitera.

1991-1994: araututako irakaskuntza-ereduaren amaiera

Hala eta guztiz ere, 1980ko hamarkada garai zaila izan zen. Udalaren, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jaso arren, zentroak, batez ere, matrikulazioei eta kuotei esker egiten zuen aurrera. Gainera, hurrengo maila lortzea aztertu zen, alegia, Erdi Mailako baimendun zentro izatea. Horretarako, baina, musika-tresnen arloan diziplina gehiago eskaini behar zen, bai

fuentes de ingresos anuales: matrículas y cuotas de alumnos, subvención del Gobierno Vasco y subvención del Ayuntamiento de Azkoitia.

Aún así, las cuotas que aportaban los padres de los alumnos no eran suficientes para afrontar todos los gastos derivados, entre otras cosas, de los imprescindibles instrumentos, que en el caso de los pianos suponían un fuerte desembolso. Afortunadamente, la Diputación también prestó su colaboración y la ayuda económica permitió adquirir los primeros pianos y otros instrumentos con que contó el centro.

Una de las características de esos primeros años era la de ser un centro adscrito al Conservatorio Municipal de San Sebastián, por lo que trimestralmente se preparaban actas y se enviaban a la capital donostiarra. A final de curso, los exámenes se realizaban en Azkoitia, salvo el último curso de cualquier disciplina de nivel elemental, para el que era necesario acudir a Donostia.

En el Conservatorio se formaba un tribunal compuesto por dos profesores de esa institución y otro de Bizkargi Musikeskola. Buena parte de los alumnos y profesores viajaban cada año en tren para realizar estos exámenes finales.

1991-1994: se agota el modelo de enseñanza reglada

En todo caso, los años 80 fueron difíciles. A pesar de las ayudas municipales, Diputación y Gobierno Vasco, el centro se sostenía preferentemente con las matriculaciones y las cuotas. Además, se planteaba alcanzar el siguiente nivel que era la denominación del Centro autorizado en el Grado Medio para lo cual era necesaria la

eta behin betiko baimena emateko beharrezko ziren gai osagarri gehiago ere.

1991ko azaroan lortu zen baimen hori. Hortaz, irakasgai gehiago sartu ziren: talde instrumentala, ganbera-musika, akonpainamendua, musika-formak, musika-akustika, musikaren historia, musika-estetika eta artearen historia. Musika-tresna gehiago ikasteko aukera ere eman zen, hala nola, tronpa eta biolontxeloa. Bestalde, irakasle-taldea hamahiru kidek osatzen zuten; ordura arte inoiz izandako kide-kopuru handiena izan zen.

Erdi mailako kalifikazioa lortzeko beharrezko dinamika garatzeko ahalegin handia egin behar izan zuten «Bizkargi» Musika Eskolako arduradunek, baina baita ikasleen gurasoek ere. Izan ere, irakasleak kontratatzeko eta musika-tresnak erosteko egin ziren gastuez gain, lokala mantentzeko gastuak ere baziren. Horren guztiaren ondorioz, ustiapen-kontua zenbaki gorritan geratu zen baina, azkenean, udalaren diru-laguntzari esker gainditu zen arazoa.

Aztertutako funtsezko gaietako bat zen eskatzen zen ikasketa-mota etorkizunean profesionalak sortzeko prestakuntza zela ia. Oso irakaskuntza zorrotza zen, ibilbiderik gabea, argi eta garbi musikariak prestatzera bideratua, zaleak prestatzera baino gehiago.

1995-2008: LOGSE legea eta eraldaketa, gaur egungo musika-eskolan

LOGSE legeak beste ate batzuk ireki zituen musika-irakaskuntzan.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea 1990ean onartu zen, eta hau xedatu zuen

ampliación, tanto de las disciplinas instrumentales como de las materias complementarias necesarias para la autorización definitiva.

De hecho, en noviembre de 1991 se consiguió dicha autorización. Se incorporaron asignaturas: conjunto instrumental, música de cámara, acompañamiento, formas musicales, acústica musical, historia de la música, estética musical e historia del arte; en cuanto a la oferta instrumental también se amplia con la incorporación de la enseñanza de Trompa y Violoncello. Por otra parte, el cuadro de profesores llegó a 13, el máximo hasta aquellos momentos.

La dinámica necesaria para dar el paso hasta la calificación de grado medio supuso un esfuerzo notable de los responsables de "Bizkargi" Musika Eskola, pero también de madres y padres de los alumnos pues a los costes de personal e instrumentos había que añadir el de mantenimiento del local. Todo ello se tradujo en números rojos en la cuenta de explotación que finalmente se resolvieron con una subvención municipal.

Una de las cuestiones fundamentales que se planteaban era que el tipo de estudios que se exigía era prácticamente de formación para futuros profesionales. Se trataba de una enseñanza muy rígida, sin itinerarios, enfocada claramente a formar músicos no aficionados.

1995-2008: La LOGSE y la transformación en la actual escuela de música

La Logse abrió nuevas puertas a la enseñanza músical

En su preámbulo, la Ley Orgánica de Ordenación General del Sistema Educativo, aprobada en 1990, se-

hitzaurrean: «Hezkuntzaren helburu nagusia eta oinarrizkoa da sexu bateko zein besteko haurrei eta gazteei beren nortasuna eratzeko aukera emango dien prestakuntza osoa ematea, eta, era berean, ezagutza eta haren balioespen etikoa eta morala sartuko dituen errealitatea ulertzeko modua eraikitzea. Prestakuntza oso horrek garatu behar du gazteek, axiologikoki askotarikoa den gizartean eta modu kritikoan, askatasunez, tolerantziaz eta elkartasunez jarduteko duten gaitasuna».

Hitzaurre horretako beste paragrafo batean, hau xedatu zen: «Hitz batez, hezkuntzak aukera ematen du bereizkeriaren eta desberdintasunaren aurka egiteko, bereizkeria eta desberdintasuna hauetako edozein izanik ere: jaiotza, arraza, sexua, erlijioa edo iritzia, familia- edo gizarte-jatorria izan, tradizioz ekarri edo gizarteko dinamikaz etengabe agertu».

Musika eta dantzari dagokionez, Lehenengo Ataleko 39. artikuluan, musika ikasteko hiru mailak eta bestelako alderdiak ezarri ostean, hau xedatzen du bosgarren paragrafoan: «Aurreko paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, berariazko eskoletan egin ahalko dira, adin-mugarik gabe, musika- edo dantza-ikasketak. Ikasketa horiek egiteak ez du emango balio akademikodun edo balio profesionaldun titulurik, eta ikasketen antolaketa eta egitura paragrafo horietan xedatutakoa ez bestelakoa izango da. Hezkuntza-administrazioek arautuko dituzte eskola horiek, erregelamendu bidez».

Hitz batean, atea ireki zitzaion ez irakaskuntza arautu eta etorkizuneko profesionalak prestatzera bideratuari, baizik eta musika-tresna bat jo, dantzatu edota musika ikastea nahi zuten eta zaletasun hutsagatik sartu ziren haurrak prestatzeko irakaskuntzari.

Legeak, era berean, deszentralizazioa proposatu zuen hezkuntza-arloan. Autonomia-erkidegoek beren

ñalaba que "El objetivo primero y fundamental de la educación es el de proporcionar a los niños y a las niñas, a los jóvenes de uno y otro sexo, una formación plena que les permita conformar su propia y esencial identidad, así como construir una concepción de la realidad que integre a la vez el conocimiento y la valoración ética y moral de la misma. Tal formación plena ha de ir dirigida al desarrollo de su capacidad para ejercer, de manera crítica y en una sociedad axiológicamente plural, la libertad, la tolerancia y la solidaridad".

En otro punto del mismo preámbulo, esta ley mantenía que "La educación permite, en fin, avanzar en la lucha contra la discriminación y la desigualdad, sean éstas por razón de nacimiento, raza, sexo, religión u opinión, tengan un origen familiar o social, se arrastren tradicionalmente o aparezcan continuamente con la dinámica de la sociedad".

En cuanto a la música y la danza, en la Sección Primera, artículo 39, tras establecer los tres grados para el aprendizaje musical y otros aspectos se precisaba en el punto quinto que: "Con independencia de lo establecido en los apartados anteriores, podrán cursarse en escuelas específicas, sin limitación de edad, estudios de música o de danza, que en ningún caso podrán conducir a la obtención de títulos con validez académica y profesional, y cuya organización y estructura serán diferentes a las establecidas en dichos apartados. Estas escuelas se regularán reglamentariamente por las Administraciones educativas".

En una palabra, se abría la puerta a una enseñanza no reglada y dirigida a la formación de futuros profesionales sino a niños y niñas que querían tocar un instrumento, bailar o aprender música sin más ambición que la afición.

eskumenak izango zituzten, eta horrek aukera ematen zien une hartara arte eskainitako musika-tresnez eta ikasketez gain beste batzuk ere eskaintzeko.

Beraz, lege berriak irakaskuntza arautua eta irakaskuntza ez-arautua bereizten zituen eta, oro har, bi ibilbide eskaintzen zituen: bata hezkuntza profesionala jaso nahi zutenentzat; eta, bestea, ikasketak musikazale gisa egingo zituztenentzat eta musika bizibide egiteko helbururik ez zutenentzat. Beste alderdi garrantzitsu bat zen irakaskuntza autonomia-erkidego bakoitzari egokitu ziezaion sustatzen zuela. Horretarako, musika-tresnen aukera handiagoa eta musika-mota gehiago eskaintzea erabaki zuen, eta talde-musika bultzatu zuen, instrumentisten berezko indibidualismoaren gainetik; izan ere, instrumentistek eta indibidualistek, berek lortu behar dute tartetxo bat egitea beti zaila eta lehiakorra den lanbide-munduan.

Hala ere, aldaketa ez zen erraza izan. Irakasleek ere zalantza izan zuten, hartu beharreko erabakiaren gainean. Bilerak eta lan-saioak egin ziren Eusko Jaurlaritzako adituekin ere, aukera berriaren aldeko eta aurkako aldeak aztertzeko.

Proposatutako aldaketa sakona zen, hain zuzen ere, zentroaren filosofia jatorritik guztiz aldatu beharko baitzen; jarduera eta musika-tresna berriak proposatu beharko ziren, eta horrek, besteak beste, irakasleak egokitzea eskatuko zuen.

Udal-eskolak izan ziren urrats hori eman zuten lehenak, eta eredu berriarekin lanean hasi ziren. Abantailak eta aukerak aztertu eta kontuan hartu ondoren, erabakia hartu zen, bi alderdi oinarri hartuta: lehena, filosofia berria hobeto egokitzen zitzaiola ikasleek eskatzen zutenari; eta, bestetik, taldeko irakaskuntzari lehentasuna emateari esker, eskolak errentagarriago egingo zi-

La Ley planteaba igualmente una descentralización en materia educativa, con competencias para las distintas comunidades autónomas, lo que suponía la posibilidad de añadir otros instrumentos y estudios a los propuestos hasta ese momento.

La nueva ley, por tanto, diferenciaba la enseñanza reglada de la no reglada, planteando distintos itinerarios para quienes buscaban formarse profesionalmente de quienes simplemente acudían como aficionados y no tenían aspiraciones de vivir de la música. Otro aspecto importante era que fomentaba la acomodación de la enseñanza a la comunidad autónoma correspondiente, ampliando el abanico de instrumentos y tipos de música, además de potenciar la música colectiva frente al individualismo propio de un instrumentista que debe hacerse un hueco en el siempre difícil y competitivo mundo profesional.

Aún así, el cambio no fue fácil. Los propios profesores albergaron dudas respecto a qué decisión adoptar. Hubo reuniones y sesiones de trabajo con expertos incluso de Gobierno Vasco para analizar los pros y contras de la nueva fórmula.

El cambio que se planteaba era profundo, pues había que cambiar totalmente la filosofía del propio centro desde sus orígenes, plantearse nuevas actividades e instrumentos, con lo que suponía de adaptación del profesorado.

Las escuelas municipales fueron las primeras en dar el paso y comenzaron a trabajar con el nuevo modelo. Después de analizar y sopesar ventajas y oportunidades, se tomó la decisión, basándose en dos aspectos: en primer lugar, la nueva filosofía estaba más en la línea de lo que demandaban los alumnos y, por otra parte, al priorizarse las enseñanzas colectivas se rentabilizaban más

rela eta, horrela, azken urteotako estutasun-dinamika alde batera utziko zela.

